


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI), 2011ko MARTXOA

Euskal AEko eraikuntza kostuak %0,3 igo ziren 2011ko martxoan aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2011ko martxoa, 2010ekoarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuek %1,1eko gehikuntza izan zuten.

2011ko martxoan, Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea %0,3 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa hil horretarako %1,1 igo zen, EUSTATen datuen arabera.

Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak, 2006-2011



(*) Gehikuntza martxotako urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

2011ko martxoan, lan-eskuaren kostua ez da aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,5 igo dira.

Martxoan Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek goranzko bilakaera izan zuten, indar ezberdinez, lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzan %0,1eko igoera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %1,6koa. Bi azpisektore hauen urte arteko bilakaerak areago erakusten ditu intentsitate ezberdinak. Etxegintzako lehengaien kostuak %0,1 igo dira eta Obra Zibilekoenak %4,7.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean, Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (%29,0), Petrolio-fintzea (%25,7) eta Metalurgia (%18,8) nabarmentzen dira, besteren artean. Berriz, urteko prezioetan (2011ko martxoa 2010ekoaren aldean) jaitsierak izan dituzte ondoko sektoreetako lehengaiak: Erauzketa industriak (%-6,8), Zura eta artelazkia, altzariak izan ezik (%0,1), Mineral ez-metalezkoen beste produktuen fabrikazioa (%1,4) eta Altzarigintza eta beste manufaktura-industriak (%1,6).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2011KO MARTXOA. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	ALDEAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	120,3	0,3	1,1	1,6
ERAIKINAK	119,2	0,1	0,4	1,2
OBRA ZIBILA	124,5	1,2	3,8	3,1
LEHENGAIEN KOSTUA	119,7	0,5	1,1	1,7
ERAIKINAK	118,3	0,1	0,1	1,2
OBRA ZIBILA	125,1	1,6	4,7	3,7
LAN-ESKUAREN KOSTUA	122,9	0,0	1,5	1,5

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua